

**Goratzarrea**

Gorespen-poema erlijiozkoa, gehienetan abesteko idatzia.

Horrelakoak erlijio gehienetan aurki daitezke. Egiptiarren eta greziarren artean; \*budismoak eta \*daoismoak ere baditu horrelako konposizioak; antzinako babiloniarrek ere bai. Entzutetsuak dira Vedako goratzarreak. \*Islamismoak ere baditu horrelakoak.

Otoitz-modu hori bereziki \*judaismoan eta \*kristautasunean landu dute: hainbat \*salmo eta Testamentu Zaharreko zati erlijiozko goratzarre bikainak dira.

Hala ere, kristau-hizkeraz gehienetan bereizi egiten dira Elizaren historian zehar sorturiko goratzarreak, salmoak eta Testamentu Zaharreko kantikak.

**Gorde-erritoak**

Sin.: Errito apotropaikoak

Horrela izendatzen dira etor daitekeen zenbait gaitzi alde eragiteko egiten diren \*zeremoniak eta erabiltzen diren \*kutunak.

**Gordetze onekoa**

Erlijiosoari buruz esaten da: norberaren institutuko betebeharrak zintzo eta zorrotz gordetzen dituen.

Ik. Erlijiosoa; Erlijioso-betekizunak.

**Gorespena**

Sin.: Handiespena; Alabantza; Laudorioa

Erlijio-hizkeran otoitz-modu bat da, Jainkoaren edo Jainkoari hurbileko zaizkionen (\*santuen, etab.en) egiteak, ontasuna eta handitasuna goraiatzeko dituen.

Ik. Aintza, 2.

**Gorespenak**

Orduen otoitzetan, egunsentian esatekoa; ofizio-errezoan otoitzaldi ardatzetako bat da, \*bezperekin batera. Grezierazko erritotan orthros esaten zaio.

Horren egituraren zati nagusiak hauek dira: \*goratzarrea, hiru \*salmo, irakurgaia, "Bedeinkatua" kantika, eskabideak, \*kolekta otoitza.

Ik. Orduen liturgia; Bedeinkatua; Jainkozko ofizioa.

**Gorpua**

Ik. Hilotza.

**Gorpu-aurreko**

Ik. Corpore insepulto.

**Gorputz mistikoa**

Kristoren gorputz mistikoa esan nahi du, haren gorputz fisiko edo lurtarretik eta berpiztu edo zerutarretik bereizteko.

Kristau-teologiaren arabera, kristauak beren artean eta Kristorekin duten batasuna adierazteko erabiltzen den irudia: gorputzaren buru Kristo bera da; kristauak, berriz, horren atalak. \*Bataioaren eta \*eukaristiaren bidez eratzen eta "gorputzen" da Kristoren gorputza. Elizarekin berekin berdintzen da, hori teologiaren aldetik eta ez soziologiarenetik ikusten denean.

Ik. Kristoren gorputza; Eliza; Elkartasuna.

**Gorputz santua**

Ik. Aldareko sakramentua.

**Gorputza/Arima**

Gorputz-arimen kontzeptua antropologia-rena edo filosofiarena da zuzenean, eta ez erlijioarena; baina erlijiozkoari oso loturik dago, erlijioaren muinean gizakiaren \*salbamenaren eta helburuaren galdera dagoelako; areago, erlijioaren jatorria bera arimari buruzko gogaierarekin oso loturik dago, \*animismoaren arabera.

Bi elementuz osaturiko izakitzat ulertzen du gizakia "gorputz-arimak" kontzeptuak. Baina horien arteko harremana oso ezberdinki ulertu ohi dute gizakiaren izatasuna azaltzean.

Gorputza zuzeneko esperientzia izanik, horren funtzioa eta helburua ezberdinki uler daiteke; arimari dagokionez, berriz, kontzeptua bera oso ezberdina eta nahasgarria izan ohi da; horregatik, "arima" hitza baztertzera jotzen dute askok. Bataren eta bestearen ikusmoldearen arabera da noski bien arteko "loturaren" ikusmoldea ere, eta, beraz, gizon-emakumearen heriotzondoko bizitzaren ikuskera.

Hiru ulerkera bereiz daitezke erlijioen artean:

a) Antzinateko hainbat kultura eta erlijiotan gorputza, zuzeneko esperientziak atzematen duena, da funtsean gizonaren ni-a; horren izpirituzko bizi-arnasa gisa ulertzen dute arima, erabat suntsitzen ez dena, hildakoaren itzalaren moduan irauten duena, benetako bizitzarik gabe, ordea; horrelako pentsamoldea aurki daiteke antzinako Txinan, Mesopotamian eta bereziki Israelen. Hori ez da materialismoarekin nahasi behar, ordea, alderantziz, arimaren geroko bizitzak eskatzen eta euskarritzen du gorputzaren \*piztuera, arimak ez bait du benetako bizi autonomorik, gorputzarekin bat egin gabe.

## Gorputzi-eguna

b) Hinduismoaren, pitagorismoaren eta orfismoaren arabera, norbera baino lehenago-koa da arima, baina funtsean berak eratzen du bakoitzaren nortasuna eta osotasuna, gorputz jakin batean konkretatzen dena; gorputza, benetan, arimaren bizilekua edo etxea besterik ez da; areago, arimaren gartzela, berez txarra, da gorputza, \*manikeismoaren ustez. Orduan, gorputzaren eta materiaren kateetatik arimari jareitea da \*heriotza; eta benetako geroko bizitza arimaren \*hilezkortasunean datza; arimari bakarrik dagokio erlijiozko salbamena.

c) Gorputzak eta arimak ez dute elkar suntsitzen, baina elkarrekiko lotura min-mina dute, bata besteari begira eta bata bestearentzako sortuak bait dira. Arimak gorputz honetara etorri baino lehen bere izatasunik ez du eduki, baina hilezkorra da eta heriotz ondoan gizakiaren geroko bizitzaren sostengua; hala ere, gizakiak ez ditu izatasun osoa eta \*salbamen betea gorputzaren piztuerarik gabe eta heriotzean hautsi den bi elementuen arteko batasuna berregin gabe.

Arimaren hilezkortasuna eta gorputzaren piztuera: biak lotzen ditu irakatsi horrek. Kristau-teologia tradizionalaren irakatsia bide horretatik joan da, hebraiarren \*piztuera eta greziarren \*hilezkortasuna bateratuz.

Paulo Agirrebaltzategi

## Gorputzi-eguna

Sin.: Bestaberria

Ofizialki Kristoren Gorputz-Odol txit santuena du izena jai horrek.

Eliza mendebaldrarean eukaristiaren erakuntza gogoratzeke eta ospatzeko ezarritako jai, \*Hirutasun txit santuaren igandearen ondoko ostegunean ospatzen dena. XIII. mendetik dator jai hori. Orain dela urte gutxi arte, \*elizbira eta \*prozesio handiak egin ohi zituzten, \*sakramentu santua agirian eramanez. Gaur, berriz, leku jakin batzutan egiten da bakarrik, agirian behintzat. Euskal Herrian oso ezaguna da Oñatikoa.

## Gorrotoa

Sin.: Ahierkundera; Herra

Maitasunaren kontrakoa: inori gaitzen bat opa izatea, barnean sentitzen den haren-ganako ikusiezinak eraginda. Bekaturik nagusitatzat dauka kristautasunak, \*maitasunarena agindu nagusitatzat daukan bezala.

Budismoan gorrotoa edo dosa da \*karma gaiztoa sortzen duten hiru sustraletako bat, \*bizi-grinarekin (raga) eta iruzurrarekin (moha-rekin).

## Gotzaina

Ik. Apezpikua.

## Gotzain-batzarrea

Ik. Apezpiku-konferentzia.

## Gotzaineria

Ik. Apezpikuteria.

## Gotzaingintza

Ik. Apezpikugintza.

## Graal

Jesusek azken afarian, eta gero guru-tzean horren odola jasotzeko Jose Arimatea-koak erabili omen zuten kaliza santua, gero galdua eta Europa aldera ekarria.

Elezahar hori Erdi Aroko hainbat poema eta nobeletako gai gisa agertzen da. Kalizaren bilaketa \*zorion lurtararen eta zerutarren bilaketaren \*sinbolo bihurtu zen.

## Grazia

Ik. Jainkoaren grazia.

## Grazi erlijioa

Jainko pertsonalaren graziatik eta ongi-nahitik datorren \*salbamena nabarmentzen duena da, gizakiaren egite onen bidez irabazita letorkeen salbamenaren aurrez aurre.

Katolizismoaren eta \*protestantismoaren artean puntu horri buruz izandako eztabaida aparte, grazi erlijioa da \*kristautasuna; era berean, horrelakotzat jotzen dira hinduismo \*bhakti erlijioak, baita budismo \*amida ere.

Ik. Jainkoaren grazia; Bhaktiyoga; Egintza onak; Egite-bidezko justifikazioa; Fede-bidezko justifikazioa.

## Grazia soila

"Grazia bidez bakarrik" esan nahi du latinezko sola gratia esakuneak. Gizon-ema-kumeen salbamenari buruz \*protestantismoak duen irakasbidea, Eliza Katolikoarenarekin polemikan sortua. Horren arabera, Jainkoaren graziak bakarrik salbatzen dira gizon-emakumeak, eta ez beren ahaleginez, egintzez edo merituz. Kristogatik zuzenesten omen ditu Jainkoak gizon-emakumeak.

Ik. Justifikazioa; Jainkoaren grazia; Egite-bidezko justifikazioa; Fede-bidezko justifikazioa; Meritua.

## Graziatzko bizia

Kristau-teologiaren arabera, jainkozko